


# Berriketan

Debako herri aldizkaria

276. alea - 2022ko iraila


**Iñigo Ruiz  
de Gordejuela**  
Musikaria

**“Nire mundu musikala  
entzulearekin partekatzeko  
dudan tresna da pianoa”**



**URDAITEGIA  
AITOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behean - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

*Calbeton*



JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



*LK Home*

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmolhome@gmail.com



**SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ**  
Abokatu eta ekonomialari elkartuak  
Zerbitzu juridikoak  
670 411 444  
centrolegal@sgoabogados.eus

**BOHÈM**  
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



**ARENA BAR**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

**Zumardi**

pentsioa

Tel.: 688 800 619  
info@pensionzumardi.com  
www.pensionzumardi.com

f i

**ORAIN**

ileapaindegia

943 19 21 09  
Hondartza kalea, 2  
Deba

**LABATAI**  
taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
06:00 ETATIK AURRERA  
PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
ETA PLATER KONBINATUAK,  
EGUN OSOAN ZEHAR



276. alea - 2022ko iraila


# AURKIBIDEA



**ALBISTEAK | 7**  
Martin Zalacain  
emanaldi dantzatua  
izango da ikusgai  
urriaren 1ean



**ELKARRIZKETA | 10**  
Iñigo Ruiz de  
Gordejuela  
musikariarekin  
solasean



**KRONIKA | 12**  
15. Animadeba  
jaialdiari buruzko  
kronika, Aitor  
Oñederraren eskutik



**IRUDI GALERIA | 14**  
Aurtengo Euskal Jaian  
ateratako argazkiekin  
osatutako bilduma  
koloretsua



**ALBISTEA | 16**  
Euskaraldirako  
prestatzen hasi dira  
Debabarreneko  
herri batzordeak (DKT)

## Berriketan

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)



### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Martin Lores

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Lege gordailua:** SS-246-200

**Inprimategia:** Gertu

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

### LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALAK

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa

**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA  
Tel: 943 19 22 63  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**ieraenea**  
ekodenda  
"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Tel: 943 53 95 20 - E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**k**  
kutxabank

**ENDANETA**  
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria 3000m<sup>2</sup>

Itziaroko gaina  
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)  
[endaneta@mueblesendaneta.com](mailto:endaneta@mueblesendaneta.com)  
[www.mueblesendaneta.com](http://www.mueblesendaneta.com)


ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera.

## Ateak zabalik daude edonorentzat

2021-22 ikasturtea amaitzeko azken kantu-saioa San Rokeetan egin genuen, Kardantxulokoekin batera, abuztuaren 17an. Abiatu berri den ikasturtea, berriz, urrian Baionara egingo dugun irteerarekin hasiko dugu.

Kalez kale kantuan hasi ginenetik hamar urte bete ditugu aurten, eta gure asmoak bere horretan dirau; kaleetan zehar kantuz aritzea.

Gure helburua bikoitza da: batetik,

euskal abesti zaharrei eustea haiek kantatuz; bestetik, Debako kale eta plazetan euskara entzutea eta herritarrek euskara ahotan erabiltzea.

Kalean Kantuz taldean ateak zabalik daude edonorentzat. Astelehenero biltzen gara entseatzeko, musika eskolan. Kantatzen dutenak ez ezik, instrumentu-joleak ere etor litezke gure entseguetara.

*Kalean Kantuz*



## Urriaren 8an denok Donostiara!

Urriaren 8an Sarek amaitutzat eman go du orain dela bi urte ezarritako erronka: 3.127.326 kilometro egitea, hau da, Euskal Herrian dauden biztanle beste kilometro egitea bizikidetzaren, bakearen eta euskal presoen etxeratze prozesuaren alde.

Erronkari amaiera elkarrekin emateaz gain, urte luzeetan urrutze politikaren amaiera eskatu duten pertsona guztiak batu nahi ditugu urriaren 8ko manifestazio-jaialdian. Hori hala, dei egiten dizuegu Debako herritarrei ere egun

horretan Donostiara gerturatzeko (tren, autobusez...), guztion bultzadaz, astiro bada ere, politika hori desagerrazten ari baikara.

Datorren urriaren 8an, larunbatean, 11:00etan egingo dugu ibilbideko azken kilometroa Bulebarretik, eta 12:00etan abiatuko da manifestazio koloretsua Pio XIItik Ilunbera bidean.

Ondoren, ekitaldia izango da Ilunben eta jaialdia hasiko da jarraian. Txosna gunea, bazkaltzeko zerbitzua eta haurrentzako gunea izango dira, baita

kontzertu eskaintza zabala ere. Ilunbe barnealdean, 15:30ean hasiko dira musika emanaldiak; Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Eñaut Elorrieta arduratuko dira hitzorduari hasiera emateaz.

Ondoren, hainbat musika talde izango dira oholtzan, hala nola Belako, Rotten XIII, Esne Beltza, Su Ta Gar, Zea Mays, Liher, Sua eta Doctor Deseo. Oraindik ere sarrerak salgai daude [www.sare.eus](http://www.sare.eus) atari digitalean.

Zatoz gurekin!

*Debako Sare*



**ASKETA, s.l.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Maitena Arrizabalaga Deba Kolegiatu zk. 20.000.975

Odontologoa

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



www.aukera-inmobiliaria.com

Aukerarik onena!

943 12 13 95 



**Higiezin Zerbitzuak**  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Tel.: 943 192 471  
Apartado 3 Tel./Fax: 943 192 303  
20820 DEBA [urlo@urlo.net](mailto:urlo@urlo.net)

## Eusko gudariak

Irailaren 27ak Ezker Abertzalearentzat karga politiko eta emozional ikaragarria du: Franco, Otaegi, Txiki eta FRAPeko hiru kide fusilatzeraz ausartu zeneko eguna; Euskal Herria ezabatu nahi izan zueneko eguna da. Baina, egun beldurgarri hori gudari guztiak omentzekoa bihurtu dugu, eta itxaropenaren eguna ere beharko luke izan.

Hirurogeita lau urteko Ezker Abertzalearen ASKATASUNAREN aldeko ibilbidean, adin guztietako jende abertzale eta ezkertiarra izan da protagonista: HERRIA IZANAZ! Ama Lurra, lurraldea defendatuz, independentzia borrokatuz, euskara erabiliz, Euskal Herria eraikiz!

Ibilbide luze honetan une ilun asko, eta argi ugari ere bizi izan ditu-

gu. Samina eta negarra nonahi, eta irribarre eta elkertasuna ere bai.

Horrenbeste urteren ondoren, emaitza garbi bat ateratzen dugu: Euskal Herria bizirik dago! Zutik! Askatasunaren bidea eraikitzen jarraitzeko. Honek poztu behar gaitu eta indarra eman ere bai, makalaldian ilusioz ekiteko datorkigunari, ez baita erraza izango aurreranzko bidea.

EUSKO GUDARIEI gure gorazarre handiena eskaintzen diegu izan zuten emankortasunagatik. Eta, gure konpromisoa berresten dugu hemen, Lapari aurrean, Kantauri itsaso aurrean, Euskal Herriaren independentzia osoaren aldeko borrokariek ingo diogula etenik eman gabe.

*Debako Ezker Abertzalea*



ITSASO ARAMENDI

### Galderak

“Zer da herrialde bat, ama? Zer da muga? Eta zergatik ezin dira pertsona batzuk pasa eta gu bai? Zertarako balio dute banderek? Zergatik ezin gara jarri treneko eserleku horietan? Zer dira 1. eta 2. klaseko eserlekuak? Zergatik dago pertsona hori supermerkatuko atarian belauniko? Eta zergatik ez dauka berak dirurik eta guk bai?...”. Uda honetan erantzun behar izan ditugun galderak dira hauek.

Gurasotasunetik pasa zaretenok edo haurrak inguruan izan dituzuenok dakizuen bezala, haur baten jakinmina aseezina da zenbait adinetan. Galdera bat bata bestearen ondoren kateatzen dute haurrek amaierarik gabeko galdera zaparrada batean.

Umeek mundua helduekiko modu oso desberdinean hautematen dute, baina ez, hala ere, modu ilogikoagoan. Haurren munduan ez dago lehen edo bigarren mailako pertsonarik.

Nola azaldu haur bati irribarre egin digun jendarmea agurtuz igaro dugun mugak hainbat lagun (zenbatgarrena dagoeneko?) bizitzaren amaiera ekarri duela azken hilabeteetan? Nola jendea laguntzeko omen dagoen poliziak jendea kolpatzen duela? Nola supermerkatuko atean eskean egon behar duela inork, gero kaxak eta kaxak zaborretara botako badituzte? Nola...?

Haurren galdera horiek zentzuga-beak dira sarri helduon begietara, baina helduok eraiki dugun munduaren zentzugabekeria uzten dutela agerian nago. Hobe genuke helduok ere mundua ikusteko darabiltzagun betaurreko ilunak kendu eta haurren betaurrekoak jantziko bagenu.

## Laster ospatuko dugu Kolore Anitz Eguna

Kaixo, kolorezaleok!

Euskal Jaiaren ondoren eta urtea amaitu baino lehen, beste hitzordu bat izango dugu zuekin! Kolore Anitz Eguna ospatuko dugu, hain zuzen ere.

Dakizuen bezala, aisialdiari eskainitako eguna izaten da, adin guztietako jendeari zuzendutakoa, azken fine-

an ez baita adin mugarik ongi pasatu ahal izateko.

Beraz, handi zein txiki, adi ibili hurrengo hilabeteetan. Laster izango duzue gure berri eta aurtengo Kolore Anitz Egunari buruzko informazio gehiago. Bien bitartean, ondo segi!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*



parte hartu  
parte izan

**Berriketan .eus**

albisteak iritziak agenda mediateka

## Amagoia Arrieta nagusi, Erromako World Boccia Challenger-ean



Garaipenak pilatzen jarraitzen du Amagoia Arrietak. Udan Portugalen lehiatutako Munduko Kopan zilarrezko domina konkistatu ondoren, podiumaren gorenera igo zen irailean Erroman lehiatutako World Boccia Challenger nazioarteko txapelketan. BC1 kategorian lehiatu zen eta, jokatu zituen partidak guztiak irabazita, txapelketa borobila egin zuen.

Arrietak bi hamarkada baino gehiago daramatza boccia praktikatzeko, eta Erromakoa bere kirol ibilbidean lortu duen seigarren domina izan da. Azken hilabeteotan pilatu dituen garaipenak esker, mundu mailako sailkapenean lehen hiru onenen artean kokatu da.

## 24 bikote ariko dira lehiaketa X. Nesken Binakako Pala Txapelketan

Abiatu berri da herriko nahiz inguruko herrietako 16 urtetik gorako emakumeentzat antolatzen den pala txapelketa. Irailaren 25ean eman zioten hasiera VII. Maite Etxeberria txapelketari eta, abenduaren 17ra arte, Aldats pilotalekuan 24 bikote ariko dira lehiaketa ostegun arratsaldeetan eta igande goizetan; hamahiru bikote lehen mailan jardungo dute eta gainontzeko 11 bikoteek, berriz, bigarren. Guztira, Deba, Mutriku, Elgoibar, Zumaia, Zarautz, Azkoitia, Zizurkil, Andoain eta Ondarroako 48 emakume izena eman dute txapelketan.

Iruleak Emakume Pilotarien taldeak aipatu bezala, "duela hamar urte, hamar bikote eman genuen izena lehenengo txapelketa hartan, baina urtez urte partaide kopurua eta frontoiko giroa haziz joan dira. Eta horixe da, hain zuzen, gure asmo nagusia: emakumezkoak frontoira gerturatzea, gozatzeko, kirola egiteko eta, nahi duenak, lehiatzeko ere bai". Hori hala, gogorarazi dute 16 urtetik gorako edozein emakume hurbildu daitenkeela Aldatsera, "igande goizetan frontoia guretzat erreserbatuta baitauek".

Txapelketa teniseko pilotarekin jokatzen den arren, gomazko pilotarekin aritzeko aukera ere egongo da.

Uneotan bost emakumezko daude federatuta Iruleak Emakume Pilotarien



Azken txapelketako finalistak.

izenean. Deban irailaren 16an eman zioten hasiera Gipuzkoako txapelketari, Astigarragaren aurka 30-23 irabazita, eta aurrerantzean ere tarteka Aldats pilotalekuan emakumeen pala partidak ikusteko aukera izango da. Norbaitek gomazko pilota probatu nahiko balu, entrenamenduak ostegunetan izaten dira, 18:30ean. "Gure artera gerturatze gonbitea egiten dizuegu; jolastera, animatzera, giroan sartzera, elkarrekin sareak jostera!".

Bestalde, bazkide kanpaina ere abiatu dute Iruleak Emakume Pilotariak; urteko harpidetza hamar euroan egin daiteke (interesdunak Aldats pilotalekura gerturatu daitezke, igande goizetan).

## iritzia



JON ETXANIZ

Erritmo zirkadiarra osasun ona, lo egonkorra eta pisu normala mantentzeko sekretu nagusia dela diote. Baina zertan datza?

24 orduren barruan, giza gorputzean gertatzen diren aldaketak dira; hitz gutxitan, gure "barne erlojua" dela esan genezake. Aldaketa kimikoak, mentalak eta fisikoak gertatzen dira txandakatzeko jakin batekin.

Erritmo zirkadiarraren ardatza eguzkia da, egunak egun direnetik bere baitan bizi izan garelako.

Gizakia, milaka eta milaka urtez, egunsentian martxan jarri eta iluntzean suaren bueltan bildu izan da atseden hartzeko. Azken urteetan, berriz, argi artifizialek eta teknologia

## Gautxori baten gogoetak

berriek gure arbasoek hainbeste gurtzen zuten eguzkitik aldendu gaituzte.

Egun mehatxu bezala bizi dugu, badirudi ezin garela bere aurrean betaurreko, txapel, krema edo guardasolen babesik gabe agertu. Orain, gainera, aldaketa klimatikoaren kontua dela eta, kiskali egin nahi gaituela dirudi.

Hau guztia kontuan izanda, eguzkiarekin erlazionatzeko dugun moduak, iluntasunaren aurrean dagoen gehiegizko argiztatzeak, gehiegizko estimulazioak... ez ote gaitu erritmo zirkadiarra errespetatzetik eta, ondorioz, osasunetik urrutiratzen? Besterik gabe, "barne erlojua" orduan jarri nahi duen gautxori baten gogoetak dira hauek.

## Urriaren 1ean *Martin Zalakain* ikuskizun dantzatua izango da kiroldegian

2017ko azaroaren 11n estreinatu zen *Martin Zalakain* Argia dantzari taldearen ikuskizun berria, Bilboko Arriaga antzokian. Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako dantza eta antzerki lana da, Artedrama arte eszenikoen plataformarekin elkarlanean sortua.

Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* eleberrri klasikoan oinarritu da Urbeltz bere ikuskizunaren argumentua lantzeko. Narrazio dramatiko duen dantza ikuskizuna da, eta zuzeneko narrazio hori Josu Camara aktoreak egiten du, On Pio Barojaren paperean sartuta.

Harkaitz Cano idazleak ondu du gidoia, Barojaren eleberriko zenbait pasarte egokituta, eta bertan kontatzen diren abentura, gatazka eta gertaerak dantzariek irudikatzen dituzte jendaurrean.

Donostiako Argia taldeko dantzariez gain, Kezka (Eibar), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz), Elai-Alai (Portugalete), Haritz E.D.T. (Elgoibar), eta Arkaitz (Añorga) dantza taldeetako dantzariek batera, Gure Kai E.D.T.ko hiru dantzarik parte hartzen dute *Martin Zalakain* ikuskizunean: Amaia Ajuriagoikoa, Igor Barojak eta Iera Larrañagak.

Ikuskizuna hamabost herritan baino gehiagotan egin ondoren, 2020ko apirilean Deban aurkeztea zen asmoa, baina pandemiaren eraginez bertan behera utzi behar izan zen hitzordua, eta geroztik emanaldia herrian taularatzeko "gogo handiz" daude partaideak, Gure Kai taldeko kideek aipatu dutenez.



Pandemiak behartutako bi urteko etenaldiaren ondoren, nolahi ere, bueltan da ikuskizuna gure geografiako eszenatikietan. Deban, urriaren 1ean izango da ikusgai emanaldia, kiroldegian, 22:00etan. Oholtzan, hogeita bat musikaririk, 80 dantzarik baino gehiagok eta Josu Camara aktoreak (narratzaile lanetan) parte hartuko dute.

Sarrerak turismo bulegoan eros daitezke aurrez, 15 euroan, eta kiroldegian ere izango dira salgai emanaldiaren egunean bertan, 18 euroan.

iritzia

### Jolastu

Iturri Ondoko ekitaldi batean haur bat zebilen Plaza Zaharreko banku azpian dau den argiekin etengabeko esperimentazioan: argiaren aurrean jarri, hankak zabaldu, buruz behera begiratu, bankura igo, eskua aurrean jarri,... Jostailurik gabeko etengabeko jolasa, gorputza, jakin-mina, irudimena eta ni.

Aurrekoan irakurri nuen jolastea dela gizakiak duen berezko ezaugarri nagusienerarikoa. Azken urte hauetan badirudi erosita-


ko zerbaitekin ez bada, jolasa ez dela baliagarria, produktiboa, didaktikoa... Diotenez, gehiegizko estimulazioak ez du esploraziora gonbidatzen, guztiz kontrakoa. Haurrei jostailuak erosten dizkiegu gurekin loturak egiteko, baina gero eurekin jolasteko ez dugu tarterik hartzen.

Lotura egiteko ez da jostailurik behar. Egon, begiratu, entzun, denboran galdu, une batez aske sentitu. Ez dezagun ahaztu gu ere haurrak izan ginela.



MARI SEARA

**Uzuri**  
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92

# Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zioneko 500. urtemuga gogoan



Ezkerrean, Juan Sebastian Elcano. Eskuinean, berriz, Victoria ontzia Abraham Orteliusen *Maris Pacifici* mapan irudikatua, 1589an.

Uztailaren lehenengo astean, Elcano Itsas Herria ekimena izan genuen geurean: Euskal Herriak itsasoarekin izan duen lotura berreskuratzeke zeharkaldi kulturala. Gainera, irailaren 6an jai eguna izan dugu, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, Juan Sebastian Elkanok munduari buelta eman zioneko bosgarren mendeurrena gogoratzeko. Izan ere, itsas kulturaz blai bizi izan gara, ezin ukatu. Gaiak erakarrita, Agustin Astorkiak, azken urteotan, ikertu egin du historia egin zuen bira; *Berriketan*-ekin partekatu nahi izan ditu paper artean aurkitutakoak.

1519ko irailaren 20an Fernando de Magallanes kapitain jeneralak gidatutako armada San Lucar de Barramedatik irten zen, 245 marinela inguruk osatuta. Horien artean 22 bizkaitar zeuden, hamar gipuzkoar, hiru nafar eta lapurtar bat.

Kanaria uharteetatik igaro ondoren, Amerika aldera abiatu ziren armadako bost ontziak. Brasileko uretatik Patagonia aldera jo zuten. Han piztu zen, San Julian badian, Magallanesen aurkako matxinada, zenbait ontzi-kapitainek, ontzi-maisuk eta abarrek antolatuta, tartean Juan Sebastian Elkanok. Zenbait hildako izan ostean, Magallanesek matxinada menderatu zuen. Bultzatzaile kargudunei gradua kendu zieten, biri izan ezik, beranduago jenderik gabeko uharte batean utzi zituztenak.

Patagoniako kostaldea arakatzeko zirela, ekaitz batean *Santiago* ontzia urperatu egin zen; eta *San Antonio* ontziak, berriz, matxinada baten ondorioz desertatu egin zuen espedizioaren janari gehiena eramanez. Azkenik, 1520ko azaroaren 27an, Ozeano Barera heldu ziren gelditzen ziren hiru ontziak: *Trinidad*, *Victoria* eta

*Concepcion*. Ozeano Barea 100 egunetan zeharkatuta, eta urte eta erdi itsasoan ibili ondoren, iritsi ziren egungo Filipinetara. Hilabetez uhartez uharte ibili ondoren, Magallanes zenbait erregeren arteko liskarretan nahastu zen: Cebu-ko erregearen eskariari men eginez, Mactan-go erregearen aurka egin zuen 50 bat gizonekin. Han Lapu-Lapu buruzagiak eta bere gerlariek aurre egin zieten eta, ondorioz, Magallanes eta zortzi marinela hilak suertatu ziren.

Egun batzuetara, Cebu uhartean, segada batean, 26 marinela hil zituzten, besteak beste, Magallanes hil ondoren espedizioa gidatzeko hautatu zituzten bi ontzi-kapitainak. Bizirik gelditzen ziren marinelekin hiru ontziak ezingo zituztela

eraman ikusita, *Concepcion* ontzia erretzea erabaki zuten, eta espedizioaren kapitain orokor berri bat hautatzea: Joao Lopes Carvalho portugesa, *Trinidad*-eko kapitaina. Gonzalo Gomez de Espinosa zen, bestalde, *Victoria* ontziko kapitaina.

## Moluketarako bidea

1521eko irailaren 16an, zenbait gertaeraren ondorioz kargutik kendu zuten Carvalho; Gomez Espinosa izango zen aurrerantzean *Trinidad*-eko kapitain, eta Juan Sebastian Elcano *Victoria* ontziarena. *Trinidad* ontziko matxura bat konpondu ondoren, Moluketarako bidea hartu zuten eta, 779 egun nabigatzen eman ostean, 1521eko azaroaren 8an iritsi ziren Tidore-ra, Moluketako hiri nagusia, eta horrela bidaiaren helburu bat lortu.

Hilabetez espezieak (kanela, iltze, jengibre, intxaur muskatua eta piperbeltza) eskuratu eta ontziak kargatu zituzten. Itzultzea erabaki zuten, baina konturatu ziren *Trinidad* ontziak ura hartu zuela eta ezingo zirela abiatu. Azkenean, 1521eko abenduaren 21ean *Trinidad* eta *Victoria* ontziak banandu egin ziren. *Trinidad*

**Mundu biran parte  
hartu zuten  
36 euskaldunetik  
hemeretzi bidean  
geratu ziren**



ontzia Tidor-en gelditu zen konponketak egiteko. Gelditzen ziren 15 euskaldunetik hamar *Victoria*-n ontziratu ziren eta beste bostak, *Trinidad*-en.

Elkanoren agindupean, *Victoria* ontzia itzulerako bidean abiatu zen. Ekaitz bortitz bat jasan ondoren, ontzia konpondu eta gero Timor uhartera heldu ziren. Han, nahiz eta Pigafetak, bidaiaren narratzaileak, ez duen garbi kontatzen zer gertatu zen, badirudi matxinada gisako bat izan zela, baina nahiz eta zenbait hildako eta bi desertzio izan, Elkanok agintean jarraitu zuen.

1522ko otsailaren 9an, Indiako Ozeanoan sartu ziren. Portugesen eremuan zeudenez, portugesen bidetik jo beharrean Elkanok hegoalderantz joatea agindu zuen ontzi-maisuaren eta pilotuaren iritzien aurka. Zenbait hilabetez lehorreratu gabe Indiako Ozeanoan zehar ibili ondoren, 1522ko maiatzaren 19an Esperantza Oeko lurmuturra igaro eta Ozeano Atlantikoan sartu ziren.

Gineako kostaldean lehorreratzen saiatu eta ezin izan ondoren, marinela gaixo, goseak eta eskorbutoz hiltzen ari

zirela, Elkano tripulazioarekin bildu eta Cabo Verde uharteetara zuzentzea erabaki zuten, janaria eta edaria lortzeko.

Garai hartan, Cabo Verde Portugalen menpe zegoenez, eta bazekitenez portugesak beren bila zebiltzala, ontziak gelditu eta marinela atxilotzeko asmoz, lehorreratzerakoan nondik zetozen ezkututzen zuten. Hala ere, laster, portugesak zein ziren konturatu eta azken aldiz lehorreratutako hamahiru gizonak atxilotu zituzten. Elkanok, hori jakitean, berriz ontzia abian jarri eta ihes egiteko agindua eman zuen.

Azkenik, 1522ko irailaren 6an, hemezortzi marinela europarrek eta hiruzpalau marinela molukarrek osatutako *Victoria* ontzia San Lucar de Barramedara heldu zen. Elkanorekin batera beste hiru marinela euskaldun itzuli ziren: Juan de Akurio, Juan de Arratia eta Juan de Zubilleta. Zenbait asteren ostean, Lisboatik igarota, Cabo Verden atxilotutako hamahiru marinela Sevillara heldu ziren, horien artean Pedro de Tolosa eta Pedro de Txindurza euskaldunak.

Mundu biran parte hartu zuten 36 euskaldunetik hemeretzi marinela bidean

gelditu ziren: hemezortzi hilda eta bestea Moluketan preso (zer gertatu zitzaion ez dago jakiterik). San Antonio ontzian 11 marinela itzuli ziren: hamar bizkaitar eta bat gipuzkoarra.

### Deba Elkanoren testamentuan

Ezin da idatzi hau amaitutzat eman Juan Sebastian Elkanok Debarekin izan zuen harremana aipatu gabe. Arrazoi zuzena ez da ezagutzen, baina Domingo de Yarzarekin izan zuen harremanaz gain, bere testamentuan lotura hori argi gertatzen da. Loaysa-ren espedizioa Ozeano Barean sartu ondoren, Elkano armadaren kapitain jeneral izendatu zuten, Karlos I.a erregeak idatzi batean aginduta utzi zuen bezala; Loaysa hilko balitz hori egin zedin eskatu zuen. Handik gutxira, 1526ko abuztuaren 4an hil zen.

Bere testamentuan, besteak beste, Itziaroko elizarako urrezko 40 dukat bidali zituen bitartean, Getariako eliza eta baselizentzako, gutxi gorabehera, gutxira 24 dukat bidali zituen. Sasiolako monastegi-rako ere urrezko beste hamar dukat bidali zituen.

## Gure herrikideak ere protagonista

(*Datuak XVI. mendeko Monreal de Deba hiribilduari dagozkio*)

Hildakoen artean inguruotako zenbait herritar egon ziren eta hildako horiekin eta, oro har, birarekin nolabaiteko lotura beste herrikide batzuek ere izan zuten. Haien istorio pertsonala era zabalagoan [Berriketan.eus](#) atarian izango da laster irakurgai.

• **Domingo de Yarza (Iarça edo Igartza).** Arotza, espedizioaren prestaketan parte hartu zuen. 1519ko irailaren 20an ontziratu zen San Lucar de Barramedan *Concepcion* ontziaren arotz modura. 1521eko maiatzean Filipinetan Bohol uhartearen *Concepcion* ontzia erre zutenean *Trinidad*-en ontziratu zen. Ez dago garbi nola hil zen. Batzuek, Pazifikoko aldera joan zirenean 1522ko urriaren 14an eskorbuto gaixotasunagatik hil zela diote. Beste batzuek, *Trinidad*-eko marinela Moluketara itzuli zirenean bizirik zegoela diote, eta preso hartu zutela. Malakara bidali zutenean hil zen, 1524ko azaroan.

• **Martin (Perez) de Garate.** Arotza, Magallanesen espedizioa irten baino lehen *Victoria* ontziaren prestaketa lanetan ibili zen eta ontzi berean itsasoratu zen. Patagonian Santa Cruz badian urperatutako *Santiago* ontziaren hondakinen bila zebiltzala ito zen, 1520ko abuztuaren 31n.

• **Juan de Elorriaga.** Ontzi-maisua, jatorriz Elorriagakoa; Magallanesen armadaren prestaketan agertzen den lehenengo marinela euskalduna da. Janaritegi funtzioa betetzen zuen *San Antonio* ontziaren maisu bezala itsasoratu zen. 1520ko Aste Santuan, *Victoria* eta *Concepcion* ontziak matxinatu egin ziren, eta

horiek Patagonian *San Antonio*-ren kontrola hartzeko asmoaren aurka agertu zenez, sei labankada emanda zauritu zuten. Zauri horien ondorioz hil zen, 1520ko uztailaren 15ean.

• **Martin de Goienaga.** Itsasontziak egiten zituen arotz-maisu honi buruz gutxi ezagutzen da. 1510eko martxoan, itsasontzi bat eraiki zuen Orioko ontzian Aiako Gonzalez de Seguiolaren aginduz, eta areatzen Juan Martinez de Legarreta bilbotarrari eman zion.

• **Martin de Arratia.** Lanbidez itsasontziko sokateriaz jarduten zuen; gutxi ezagutzen da bere bizitzari buruz.

• **Martin de Amusatategui.** 1534an Juan de Akuriok Karlos I.a erregeari, idatzi batean, erregutu zion Domingo de Yarzari zor zitzaion soldata bere familiarrei ordaintzeko. De Amusatateguiaren bitartez horrela gauzatu zen.

• **Santuru de Reten.** Lanbidez itsas arotz-maisua zen itziartar honek, 1515eko maiatzean Zarautzen berak egindako ontzi bat Andres Indañetari eman zion. Batzuren ustez, 1518ko irailaren 23an Domingo de Apallua ondarrutarrari konfiskatutako *Santa Maria* izenekoa da ontzi hori; gero *Victoria* izenarekin birbataiatu zen ontzia, eta Elkanoren eskutik lehen mundu bira eman zuen.

• **Iñigo de Elorriaga.** Debako marinela Elkanoren bigarren mundu biran egon zen. *Victoria* ontzi kapitainaren kontramaisu bezala aritu zen, eta Urdanetak esan zuenez, Guam uharte inguruan ontzi beraren maisu izendatu zuten. 1529an Moluketan gaixotu eta hil omen zen.

## Iñigo Ruiz de Gordejuela musikaria

# “Gure artearekiko ikuspegia zein ezagutzak partekatzea ezinbesteko lana dela deritzot”

Hamabi urte bete zituen arte Deban bizi izan zen arren, Madrilen bizi da gaur-gaurkoz Iñigo Ruiz de Gordejuela. 28 urte ditu, musikari familia bateko kide da eta hamaika proiektu musikaletan murgilduta dabil aspaldian. Pianoa lagun, denerarik egiten du: jo, konposatu, inprobisatu, irakatsi...

Orain arte lau disko plazaratu ditu, eta sari ugari lortu ditu bai Euskal Herrian bai nazioartean. Uneotan, besteak beste, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan dihardu irakasle. Itziarren etxekoei bisita egiten egon den azken egonaldietako batean izan dugu berarekin *Berriketan* aritzeko aukera.



Arg.: Klaudia Cybulska

**Oraintsu Deban, Jazzez Blai-en hartu duzu parte Malwina Masternak-ekin. Nola oroitzen duzu?**

Kontzertu polita izan zen, Malwinaren disko berria estreinatu berri dugulako, eta Deban lagun artean gaude-lako. Jazzez Blai oso jaialdi berezia da, ez dago halako askorik, nahiz eta oraindik gure inguruan zertxobait ezezaguna izan. Irabazi asmorik gabe, eta herriko eskaintza kulturala zabaltzeko lan izugarria egiten du Jazzez Blai-k, Gure Giro egitasmoren barnean. Urtero proiektu berriak eta berritzaileak entzuteko aukera izatea ez da gauza makala, debar guztiak harro egoteko moduko festibala da Jazzez Blai.

**Musikari familia bateko kide zara; ama eta anai-arrebak musikari... Umetan zer izan da musika zuentzat?**

Goizetan, ikastolara igo baino lehen, bakoitzak ordu erditxo bat praktikatzen genuen nork bere instrumentuarekin. Eguneroko lan horrek eragiten zizkigun bai pozak eta bai negarrak. Zerbaitekiko zaletasuna diziplinarekin oso lotuta dago, zenbat eta gehiago ezagutu eta landu, orduan eta interesgarriagoa bihurtzen baita. Umetan zaila da gurasoen esfortzua garrantzitsutzat jotzea, baina

gure kasuan eguneroko lan hori bizimodu bilakatu zen.

**Dagoeneko hiru disko atera dituzu zeu buru zarela (*Amalur, Urjauzia eta Surrogate Activities*) eta, laugarrena, *Move, Move Quartet* taldean. Nondik datorkizu inspirazioa?**

Bizipenek ematen digute zer sortu eta zer esana. Zergatik sortzen dugun jakitea edo erantzutea antropologo bati dagokio, baina denok gara sortzaileak modu batera edo bestera, behar hori baldin badugu. “Inspirazio” hitzak zerbait magikoa dirudi, baina lana eta ohitura besterik ez da. Kirolarekin analogia bat egitearren, une zehatz batean “inspiratuta” egoteko, egunerokoan lan izugarria egin behar da.

***Urjauzia*-k 2018ko diskorik onenaren BBK Jazz saria jaso zuen. Beste sari ugari ere lortu dituzu bai Euskal Herrian bai nazioartean; besteak beste, 2018an publikoaren bakarlaririk onenaren saria *Getxo Jazz* jaialdian.**

Sariak gizartearen edo erakunderen baten errekonozimendua dira, beraz, beti da pozgarria halakoren bat jasotzea. Dena den, sariek ezin dute gure bizitza artistikoa gidatu, mugatu edo horretan eraginik izan.

Musikariok gure lana egin behar dugu, beti aurrera. Woddy Allenek zioen bezala, Oscar-a behin jasotzen badut, horrek esan nahi du jasotzen ez dudanean jaso ez izanaren epaia onartzen dudala.

**Bostongo Berklee College of Music eskolan eta gero New England Conservatory-n, bietan ere jazz musikari erreferenteak izan dituzu irakasle edo eszenatokiko kide. Bizi esperientzia ederak, ezta?**

Hala da, urte mordo bat egin nituen han eta izugarritzako esperientzia izan zen bizitzako arlo guztietan. Beste kultura batera moldatzeak energia asko eskatzen du hasiera batean, baina baliabide handiak eman dizkit etorkizuneko erronkak prestatzeko.

**Musika irakaskuntzak leku handia izan du zure ibilbidean; Bostonen, Erdialdeko Amerikan, Valentzian, Deban... eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egun. Irakaskuntza asebetetzen zaituen zerbait al da?**

Gure artearekiko ikuspegia zein ezagutzak partekatzea ezinbesteko lana dela deritzot. Bestalde, errealitate gordina da ere musikariok irakasle lanak kontzertuekin bateratu behar ditugula janaria platerean

jartzeko, batez ere COVID-19ak musika ikuskizunetan izan duen eraginaren ondorioz; beraz, alde batetik, bokazioa, eta, beste aldetik, behar hutsa.

**Ikasgeletako ikasketa soiletik urrun, musikaren pedagogia gizarte mailako ekimen marko zabalago batean ulertzen duzu, antza.**

Zalantzarik gabe. Jazz-a ez da gure inguruan jaio, ezta Europan ere. Beraz, musikarion lana da ahal dugun heinean entzuleak prestatzea eta belaunaldi berriengan argi hori piztea. Musikariorik merkatu bat izatea interesatzen zaigu, eta merkatu hori entzuleek sortzen dute. Matematika hutsa da; zenbat eta zale eta entzule gehiago, orduan eta merkatu zabalagoa. Gure produktuek ez dute itsasoa plastikoz betetzen, ezta inoren bizitza zapaltzen ere. Soinua lantzen dugu, denbora-espazio konkretu batean, eta hori entzuleekin elkarbanatzea da gure lana.

**Euskal Herriko musika folklorikoan ere jantzia zara; zure sorkuntzetan ere izango du lekua, ala?**

Zertxobait bai. New Orleans-eko umeek bluesa edo *second-line* erritmoak entzuten dituzten bezala, nik txikitan Oskorri eta Laboaren musika entzuten nuen, aitaren biniloetan. Bakoitzak bere influentziak dauzka. Dena den, ez naiz jazz azpigeneroen oso zalea, eta ez diot nire musikari "euskal jazz" etiketa jartzen. Espainia mailan, flamenco jazz edo latin jazz bezalako etike-

tak erabiltzeak musikarion lana asko mugatu du, kategoria konkretu batean sartu behar izateagatik.

**Kolaborazioak egin ohi dituzu beste hainbat musikarirekin. Bakarka zein musikariz inguratuta, modu batera bestera bezain eroso sentitzen zara?**

Bai, pianoak abantaila hori eskaintzen du. Bakarlarri, lider zein *side-man* bezala lan egiteko aukera daukat. Proiektu pertsonal bat aurrera eramateak lan inbertsio handia eskatzen du, eta ez da beti ekonomikoki bideragarria. Beraz, denetik egiten dut, nire proiektuak, *Big-Band*-ak, abeslariak lagundu, konponketak egin, konposatu, irakatsi...

## **“Musikarion lana da entzuleak prestatzea eta belaunaldi berriengan argi hori piztea”**

**Emari handia duzu, pianoa lagun; aipatu duzun bezala, denetarik egiten duzu: jo, konposatu, inprobisatu, irakatsi... Eta zaren pertsonari zer ematen dio horietako arlo bakoitzak?**

Musika nire instrumentutik kanpo ikus-teak joko-ikuspegi zabalagoa ematen dit. Instrumentua, hitzak dioen bezala, tresna

bat da. Eta edozein tresna bezala helburu baterako erabiltzen da. Nire konposizioak, inprobisazioak eta nire mundu musikala entzulearekin partekatzekeo dudak tresna da pianoa.

**Gatozen egunotara. Alberto Arteta (saxofoia), Borja Barrueta (bateria), Javier Callén (kontrabaxua) eta zuk zeuk (pianoa) osatzen duzue Move Quartet. Jo eta ke ibili zarete kontzertuz kontzertu azken hilabeteotan. Beste proiekturik baduzu esku artean?**

Bai, proiektu ugari nabil. Orain Madril aldean biziko naiz denboraldi batez, bertako musikariek nire proiektuak gartzeko. Alde batetik bestera ibiltzen ohituak gara musikariak; azken finean, perretxikoak ez bezala, ideia eta influentzia berriak ez daude beti leku berean. Bizitza estilo dinamiko eta desegonkorra da, baina badu horrek ere bere alde ona.

**Zeurea da azken hitza, Iñigo. Ondorengo lerroak zureak dituzu.**

Bukatu da uda, eta elkarrizketa gogoeta txiki batekin bukatu nahi nuke. Uda da musikarion uzta garaia, tamalez. Tamalez diot, udako festibal erraldoiek gaizki ohitu gaituztelako jazz-a udan bakarrik entzutea. Musika eta artea gizakion behar bat da, eta urte osoan gozatu beharreko zerbait, dosi egokietan. Analogiekin jarraituz, onartuko al luke jendeak "Donostiako Futbol Astea" edo "Gasteizko Futbolaldia"-n lau partida ikusi, eta urte osoan futbolik ez izatea?



Arg.: Martin Lores

## Aitor Oñederra: “Badakit herritarrei aurkeztu diegun egitaraua exigentzia handikoa dela; horregatik, oso esker oneko nago”



**15. Animadeba izan da aurtengoa eta, Aitor Oñederra zuzendariaren esanetan, azkena izan da guztietan “osoena”, bai edukiagatik bai publikoagatik, parte hartze handiena izan baitu. Jaialdiaren nondik norakoak, berritasunak, finantzaketa, antolakuntzaren ahalegina... *Berriketan*-i egindako kronika honetan laburbildu ditu zinemagile debarrak.**

Bi ekitaldi berri izan ditugu aurtengo jaialdian: Kasu-Azterketa eta Euskal Animazioaren 50. urteurrena.

Batetik, Kasu-Azterketa sailarekin, industriari leku handiagoa eman nahi izan diogu; zinema zuzendari eta ekoizleek euren film luzeen ekoizpenari buruzko azalpenak ematean datza atal hau. Aurkezten diren filmak amaitu gabeak edota estreinatze bidean izaten dira normalean, eta gurekin izan ditugu Fermin Muguruza *Black is beltza II: Ainhoa* filmarekin, Isabel Herguera *El sueño de la sultana* filmarekin, eta Alberto Vázquez *Unicorn Wars* lana aurkezten.

Bestetik, jarduera paralelo gisa, Euskal Animazioaren 50. urteurrena ospatu dugu Kultur Elkarteko plazan. Hiru saiotan, 53 film labur proiektatu dira. 1970-2020 bitartean euskal zuzendariak egindako lanak ikusi ditugu bertan; besteak beste, Rafael Ruíz Balerdi, Juanba Berasategi, Isabel Herguera, Juan Carlos Eguillor, Bego Vicario, Kote Camacho, Joseba Elorza, Charo Garaigorta, Jose Félix González Placer *Etxegarai'ko Goti*, Izibene Oñederra, Zaloa Ipiña, Joseba Ponce, José J. Bakedano, Gerardo Armesto eta Juanjo Elordiren filmak.

97 herrialdeetatik bidalitako 1.057 lan aurkeztu dira Film Laburren Nazioarteko Lehiaketara, eta horietatik 27 film aukeratu ditu Debako hamabost herritarrek osaturiko Hautatzaile Batzordeak.

Hiru sailetan banatu dira filmak: Sail Nagusian, Zuzendari Berriak UPV-EHU Sailean eta Panorama Sailean. Eta epaimahaiak manga estiloaren alde egin du azken erabakian. Hori hala, Nieto zuzendari frantziarraren *Swallow the Universe* gailendu da Film Onenaren Sariarekin; Stephanie Lansauek eta Francois Leroyk zuzendutako *The Awakening of The Insects* film frantziarrak lortu du Gidoi Onenaren Saria eta Zuzendari Berriak Saria *The House Of Loss* Jinku Jeonen ekoizpen hego korear-japoniarrarentzat izan da. Publikoaren saria, berriz, Bartzelonako Ana Solanas eta Marc Rivaren *El Matí del Señor Xifrók* eraman du.

### Work In Progress

16 lan izan ditugu sail honetan, bi ataletan banatuta: Talentu Berriak eta Work In Progress profesionalak. Esparru honetan, enbrioi prozesuan edota amaitzear dauden film laburrak eta animaziozko telesailak aurkezten dira; bakoitzak 10-15

minutuko tartea izaten du bere lana epaimahaiaren aurrean defendatzeko. Hiru sari banatu dira: Work In Progress Saria (500 eurokoa), Izibene Oñederraren *Biziraupen Anormala* film laburrari; Euskaraz egindako proiektu onenari Berria egunkariak emandako saria, Hauazkena Taldearen *Eubalaena* film laburrari; Talentu Berriak Saria, Giovana F. Pradoren *Cap Piloto* telesailari. Talentu Berrietan, aipamen berezia Maite Espinosaren *Txakurrek* lanak lortu du.

### Finantzaketa

Batetik, diru iturri publikoa dago. Debako Udalak 30.000 euro jartzen ditu, bera da ekitaldiaren babesle nagusia. Diru horrez gain, Kutxa Zuriaren (karpa) gastua hartzen du bere gain, eta horrek arnasa ematen digu beste ordainketa batzuk egiteko. Udal langileak ere laguntzen izaten ditugu eszenatokiak eta beste zenbait egitura muntatzen. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza ere Animadebaren laguntzaileak dira.

Bestetik, finantzaketa pribatuari dago-kionean, beherakada handia izan dugu. Gurekin genituen enpresa ugari ezezkooa eman digute aurten, bakoitzak bere arrazoiekin. Erabat larritu ginen maiatzean eta, azkenean, Kutxa Fundazioaren, Filmazpitzen eta Goimek enpresaren diru laguntzek eman digute aurrera egiteko aukera.

Aurretik esan bezala, dimentsio handiko Zinemaldia da Animadeba, eta diru

laguntzak berrantolatuta izan aurretik diseinatu beharra dugu jaialdiaren egitura eta programazioa. Ez da batere samurra izaten, azken unera arte ez baitugu jakiten gastu guztiak ordaintzeko gai izango garen.

### Antolakuntza

Aipatu nahi nuke jaialdi garrantzitsuak bezala eratua dagoela Animadeba; urte osoan antolakuntza lan horretan bakarrik aritzen diren bestelako zinemaldien parekoa da. Gurean, ordea, bakoitzak bere lana du, gaur egun ezin baita Animadebaz bizi. Eta urte osoan egin beharreko lanen zerrenda luzea da: egitaraua programatu, finantzaketa bilatu eta gastuak justifikatu, diseinua prestatu, komunikazioa landu, urte osoan Debatik kanpo emanaldi bereziak egin, nazioarteko jaialdietara bidaiatu, edukiak prestatu, kontzertuak programatu, gonbidatuekin jardun, boluntarioak antolatu eta abar luze bat.

Esan bezala, asmo handiko ekitaldia da hau. Aspaldi aipatu nizkien udalari eta beste eragileei Animadebarekin nituen asmoak: "Orokorrean, zinema munduan dabilzanen eta bereziki animazio industriaren elkargune bilakatzea nahiko nuke Animadeba Zinemaldia. Herritarrentzat eta profesionalentzat, irailaren bigarren astean ospatzen den urteroko hitzordua izatea nahi dut".

### Esker onez

Ez da erraza Deba bezalako herri txiki batean dimentsio honetako nazioarteko zinema ekitaldi bat antolatzea, eta are gutxiago bertan animaziozko edukiak proiektatzen baldin badira. Lau egunetan, zinema proiektzioak, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak eta beste zenbait emanaldi paralelo izan dira bertan, eta zaila da ekitaldi guztietara jendea ekartzeari. Herritarrei aurkeztu diegun egitaraua exijentzia handikoa dela ere badakit; horregatik, oso esker oneko nago, Sail Nagusiko bi saioetan aretoa erabat bete dugulako. Ziur nago alde teknikoagoa duten ekitaldiak ikustera ere animatuko direla herritarrak etorkizunean.

Azkenik, eskerrak eman nahi genizkizueke ekimena gauzatzen lagundu duzuen boluntarioei, trukean ezer eskatu gabe urtero laguntzen zabilatzateno; eskerrik asko, bihotz-bihotzez, lantalde osoaren partez.

## Urriari zabalduko da Mintzalaguna programaren izena emateko epea Deban

Azken urteotako dinamizari eutsita, Deban ere herritarrak euskaraz hitz egitera gonbidatu ditu Zuhatza Euskara Elkarteak ikasturte berrian. Urriari emango zaio hasiera Mintzalaguna programari.

Urteaz urte ari da zabaltzen mintzalagunen sarea Euskal Herrian, urtez urte gehiago dira elkarrekin praktikatu euskaraz aritzeko espazio eta guneak irabazten ari diren lagunak; gaur egun, 7.000 herritarrek baino gehiagok parte hartzen dute Mintzapraktika egitasmoetan.

### Zer da Mintzapraktika?

Zuhatzak kudeatzen du ekimena Deban, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, eta urriari zabalduko du izen ematea. Hala ere, urte osoan egongo da egitasmoarekin bat egiteko aukera (aurrez osatutako taldeetan sartuko dira interesdunak).

Ekimenaren sustatzaileek gogorarazi bezala, "asko dira euskaraz aritu nahi eta aukerarik ez dutenak, inguruan horretarako lagunak ez dutelako. Zenbaitek euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko aukerarik ez dute eta guztiek dute lekua egi-

tasmo honetan, Mintzapraktikan aurkitzen baitute euskaraz lagun artean aritzeko aukera".

Programaren "harreman berriak sortu eta indartzen dira euskaraz". Taldean elkarrekin aritzen dira "eta euskaraz egiteko ohitura hori inguruko jendearengana zabaltzen dute, hizkuntza hautuetan eraginez".

Partaideak astean behin elkartzen dira talde txikitik euskaraz aritzeko: *bidelariak* (euskaraz ikasten ari direnak edo ohitura berreskuratu nahi dutenak hizkuntza praktikatu) eta *bidelagunak* (euskara aise erabiltzen dutenak eta ikasten ari direnei euskaraz praktikatzen laguntzeko borondatez izena ematen duten euskaltzaleak). Batzuei zein besteei dei egin diete egitasmoan parte hartzera: "Ireki atea eta praktikatu gurekin, talde giro hurbilean. Zurekin euskaraz egin nahi dugu!".

### Izena emateko erak

Zuhatza elkartearen bulegoan, [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)-era idatzita edo [labur.eus/Zuhatza\\_Deba](http://labur.eus/Zuhatza_Deba) helbidean sartuta. Informazio gehiagorako: 943 19 13 83.

## Gerraosteko emakumeen lan ikusezina argitaratu du Jon Abrilek azken lanean



11 lanbidetan aritutako hamalau emakume langileren testigantzak batu ditu Jon Abrilek irailaren kaleratutako *Isildutako eskuak* saiakeran. 2021. urteko Tene Mujika bekari esker argitaratu lanarekin, egileak aitortza egin nahi izan die ekarpen sozial eta historikoa egin zuten emakume horiei guztiei.

# EYSKAL JAIA 2022



Baserritar jantziak soinean, euskal giroz beteriko bi egun bizi izan zituzten herritarrek irailaren 23an eta 24an. Eguraldiak kontrakoa iradoki arren, giro ederrean eta betibetiko izaerari eutsita ospatu zuten jaiak.

Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatutako Euskal makarroi lehiaketak eta Kalean Kantuzekoen kantaldiak eman zioten hasiera aurtengo egitarauari hilaren 23an.

Irailaren 24a ere, lehen ordutik azkenekora, jardueraz eta euskal giroz beteriko eguna izan zen. Eguneko hitzordurik goiztiarrena X. Marmitako lehiaketa izan zen; estalitako pasealekuan batu ziren parte hartu zuten bost taldeetako sukaldariak.

Hurrengo orduetan eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, Kalez Kale txistulari taldeak eta Zubietako joaldunek ahalegina egin zuten eguerdi aurreko uneak girotzeko. Gauza bera egin zuten Gure Kai taldeko eta Musika Eskolako dantzariak.

Eguerdia gerturatu ahala, gero eta jende gehiago batu zen kaleetan. Eta euri zaparradei aurre eginda, jendetza batu zen Aldats pilotalekuan egindako bazkari herrikoian; hitzordura hutsik egin ez zuten 600 bat lagun elkartu ziren giro ederrean.

Bazkalostean iragarri zituzten Marmitako lehiaketaren irabazleak. 20,5 punturekin, Pilar Rincon, Arantxa Lariz eta Marga Tomas izan dira irabazleak. Zuhatzak zozkatu zituen saskien irabazleak ere une berean iragarri zituzten; lehen saskia Goretti Urzelaik irabazi du (9527 zenbakia), eta bigarrena Jose Mari Saenzek (4170 zenbakia). Jai giroa goizeko ordu txikiak arte luzatu zen. Orkestra Elektrotarangak iluntzeko poteoa alaitu zuen. Mugi Panderoa erromeriak, berriz, euritik babestuta frontoian batu ziren guztiak dantzan ipini zituen gauean.

Zuhatza Euskara Elkartearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Euskal Jaian parte hartu zenutenoi. Festan murgildu zirenak, egitaraua antolatzen lagundu zutenak... Eta, nola ez, zozketarako bertako produktuak eskaini dituzten ekoizleei eta merkatariari. Mila esker guztioi!

## argazki eta bideo galeriak

[www.berriketan.eus/mediateka](http://www.berriketan.eus/mediateka)  
edo Zuhatza Euskara Elkartearen  
YouTube-ko kanalean ikusgai.





# Debabarrenean, hitzetatik ekintzara



Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egingo da Euskaraldia eta Debabarreneko herri batzordeak hasi dira ekimenerako prestatzen. *Hitzez ekiteko garaia* da edizio honetako leloa eta, horregatik, hitzetatik ekintzara pasatu dira eskualdean.

Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ere *ahobizi* / *belarriprest* dinamika erabiliko da eta, norbanakoez gain, entitateek ere hartuko dute parte *ariguneak* osatuz; hau da, entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, erakunde, zerbitzu, enpresa...) euskaraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak.

Parte hartu nahi duten entitateek maiatzetik dute zabalik izena emateko epea eta norbanakoena irailaren 28an

zabaldu zuten. Izena emateko, aurreko edizioaren batean parte hartu zuten herritarrek eta entitateek mezu elektronikoko bat jasoko dute izen ematea berresteko, hala nahi badute behintzat, edo datuak aldatzeko. Parte hartzaile berriek, ostera, *euskaraldia.eus* webgunearen bitartez eman dezakete izena.

Azaroan hasiko den ariketari begira berotzen joateko, Euskaraldiaren gune ibiltaria herriz herri ibiliko da informazioa zabaltzen eta jarduera ezberdinak egiten. Urriaren 20an Ermuan egongo da, 26an Soraluzen, azaroaren 10ean Elgoibarren eta 12an Eibarren.

## Nolako izan da zure esperientzia Euskaraldian?

### JON ANDER URAIN

Euskaraldiaren dinamizatzailea - Deba



Euskaraldiaren aurreko edizioetan, *ahobizi* izan naiz. Aurten, ordea, *ahobizi* izateaz gain, Debako dinamizatzaile lanetan ere banabil. Orainsu, irailaren amaieran, herri batzordea jarri dugu martxan eta abiada hartzen goaz. Entitateek *ariguneak* sortzeko ahalegina egingo dugu urriaren erdialdera arte eta, horrez gain, hemendik aurrera, norbanakoen izen emateari helduko diogu.

2022ko edizio honetan ere, tabernen, saltokien, norbanakoen... hizkuntza ohituretan eragiten saiatuko gara. Hala ere, lagun arteko hizkuntza ohitura aldatetetan jarriko dugu arreta. Horregatik, Euskaraldiaren ariketa ondo egiteko, *ahobizi* edo *belarriprest* norbanakoen rolen aukeraketa egokiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, konpromisoak eta jokoerak gaitasunak berak baino garrantzi handiagoa dutela argi utziz.

### JOSU LEUNDA

Teknikerreko Euskaraldiko arduraduna - Eibar



2018an gogotsu ekin genion Euskaraldiaren lehen edizioari eta apiriletik hasi ginen Euskaraldiaren dinamikan pixkanaka murgiltzen. Azkenik, Euskaraldiari zegozkion 11 egunetan, guztira 90 lankide inguruk (60 *ahobizi* eta 30 *belarriprest*), paparrean txapak jarri eta euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, bai eta neurri handi batean bete ere. Euskaraldiaren bigarren edizioak pandemia bete-bete harrapatu gintuen, eta egoera honek ez zion batere lagundu dinamikari. Batetik, lankideon arteko aurreko harremanak asko mugatu zituen; eta bestetik, lankideen parte hartzea lortzea ere zailagoa egin zitzaigun, giroa erabat hoztuta baitzegoen. Gainera, *ariguneak* osatzea tokatu zitzaigun eta 11 *arigune* osatu genituen.



## IXAKA EGURBIDE

IMH Campus-eko zuzendaria - Elgoibar



Euskaraldia ekintza gakoa izan da gure euskara planaren jarraipenari indarra emateko. Ariketa kolektiboa den heinean, euskaldun aktiboa izatearen kontzientzia areagotu eta hainbat joera apurtzeko balio izan digu. Beste hainbat enpresa eta herritarrekin batera Euskaraldia "praktikatzen" dugula ikusteak babes-sentimendua eta konfiantza eman digu Euskaraldiak dirauen bitartean elkarrizketa elebidunei eusteko, eta zenbait kasutan Euskaraldiaren ondoren ere bai.

Ziur gaude aurtengo Euskaraldiak gure campusa osatzen duten kideen hizkuntza ohiturengan berriro eragin eta euskararen erabileran beste bultzada bat ematen lagunduko digu.

## ROBER RODRIGUEZ

Euskara ikasle ohia - Mallabia



Euskaraldiko bi edizioetan parte hartu izan dut, betidanik izan dudalako euskara bultzatzeko nahia. *Belarriprest* rolean aritu izan naiz eta, lehenengo edizioari esker, laneko hizkuntza ohiturak aldatu nituen, eta ordutik lankide batzuekin euskaraz hitz egiten dut. Ordutik ere, naturaltasun osoz nahasten ditugu euskara eta gaztelania kuadrillan.

Ezezagunekin, aldiz, onartu beharra daukat erosoagoa egiten zaidala gaztelaniaz hitz egitea, oso lotsatia naizelako eta uste dudalako hobeto adierazi ahal izango dudala esan nahi dudana. Puntu horretan gaudenontzat, mugan, ulertu bai baina hitz egiten ausartzen ez garenontzat, Euskaraldia oso mesedegarria da, konfiantza hartzen laguntzen digulako. Dena den, euskararekin tematzea da kontua eta, ez badago benetako interesa, egindako guztia alferrik da.

## AINHOA AIZPURUA

Haur Hezkuntzako irakaslea - Mutriku



Euskaraldiko lehenengo urtea Bilboko giroan bizi izan nuen; unibertsitatean nenenbilen garaian, hain zuzen ere. Hizkuntzari dagokionez, ezohiko giroa niretzat; ekimen edo ariketa sozial hark sorrarazi zidan sentsazioa, aldiz, benetan arraroa. Euskararen arnagune (oso herri euskaldun) batetik hara joan eta... bai, nik bizi izan nuen giroari dagokionez behintzat, soinean generaman *belarriprest* edo *ahobizi* ikurra etiketa edo postureo hutsa zela iruditu zitzaidan. Mutrikuarra izanik, eta oso euskaldun giroan bizi izanik, egoera hark erabat amorratu ninduen, euskaldun izatea ez baita Euskaraldian pin bat jartzera mugatzen. Zorionez Mutriku bizitza euskaraz bizitzea ahalbidetzen dit eta aitortu beharra daukat askotan ez naizela ohartzen esku artean dugun altxorraz. Neurri batean behintzat, Euskaraldiak horretaz gehiago jabetzea eta garenaz harro sentiaraztea eragin dit.

## DAVID GOMEZ

Dendaria - Ermua



Ermuko Euskaltzaleen Sarea eta Ermuan Bagara ekimena sortu zirenetik, modu aktiboan jardun dut euskara bultzatzeko helburua duten ekintzetan. Horren harira, Euskaraldiko bi edizioetan ere parte hartu izan dut, *ahobizi* rolean, eta talde eragilean hainbat lan burutu ditut, tartean egitasmoari buruzko informazioa herritarrei zabaldu eta izenak jaso, kalean jarritako informazio puntuetan. Egindako lan horri esker, euskaraz aritzen den jende asko ezagutu dut, eta ondorioz, gero eta gehiagorekin hitz egiten dut euskaraz nik neuk ere. Horrez gain, gure denda *arigunea* izan zen azken edizioan (*arigune* bezala izena eman zuen lehen entitatea Ermuan, hain zuzen ere), eta ordutik nabaritu dut gaztelaniaz hitz egiten ziguten bezero askok euskaraz hitz egiten digitela orain, aldaketa egin dutela.

## LURDES RODRIGUEZ

Administraria - Mendaro



Ariketa interesgarria iruditu izan zait beti Euskaraldia eta aurtien ere badut parte hartzeko asmoa. Orain artean, baina, *ahobizi* izan naiz, eta oraingoan *belarriprest* rola aukeratuko dudala uste dut. Lehen hitza euskaraz egiteko joera hori badut, baina eginda ere, ez zidaten nik nahi bestek egiten euskaraz. Euskara gehiago entzun nahi dut, eta pentsatu dut beharbada paparrean *belarriprest* txapa jarrita

gehiagok egingo didatela. Ez dakit, baina probatuko dut. Iruditzen zait oraingoan jende gehiagok parte hartuko duela eta badut ilusioa. Aurrekoa ez zen nik nahi bezain ikusgarria izan, egia esan. Ez nuen nahi besteko mugimendua sumatu nire bueltan. Uste dut pandemiak min handia egin ziola ariketari berari, baina orain beste testuinguru batean gaude eta emaitza beste bat izango dela sinetsita nago.

## ESTHER CRUZ

HEFA-Ieko Practicum eta GRAL Dekanordea - Soraluez



Hasieratik parte hartu dut Euskaraldian, *belarriprest* rolean. Esan dezaket Euskaraldiak asko laguntzen duela hizkuntza ohiturak aldatzen. Adibidez, norbaitekin beti gaztelaniaz komunikatu bazara, oso zaila da ohitura aldatzea. Aldiz, Euskaraldiari esker, kuadrillako lagun batekin, bakarrik gaudenean euskaraz egiten dugu. Lantokian, lankideen arteko harreman formalak euskaraz izan arren, leku informaletan, kafe-makinaren bueltan, adibidez, gaztelaniara jotzen dugu; Euskaraldia datorrenean, berriz, euskaraz jarduten gara. Beraz, Euskaraldiak eragin handia dauka. Anekdotak modura, familian (familia osoaren etxeko hizkuntza gaztelania da) beti bizi izan gara gaztelaniaz, nahiz eta Euskaralditik semeekin euskaraz egiten ahalegindu. Bada, orain gutxi, semeak Maltatik deitu zidan eta hango lagunak euskaraz bizi zirenez, lehen aldiz berak ere euskaraz egin zidan. Halakoetan ikusten da zein inportanteak diren hizkuntza ohiturak.

**IRAILAK 30, OSTIRALA**

-16:00. **Bisita gidatua:** *Gotikoaren altxorra Deban*. Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**URRIAK 1, LARUNBATA**

-22:00. **Ikuskizun dantzatua:** *Martin Zalakain*, Kiroldegian. Sarrerren salmenta: aurrez turismo bulegoan eta kiroldegian egunean bertan.

**URRIAK 2, IGANDEA**

-08:30. **XXVIII. Debako Bira Zikloturista**, Foruen Plazatik hasita.  
-19:00. **Zinema:** *Cinco lobitos*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

**URRIAK 3, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

**URRIAK 7, OSTIRALA**

-Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den Euskaraldiaren aurkezpen publikoa: **Hitzez Ekiteko Garaia**.

**URRIAK 9, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Black box*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

**URRIAK 12, ASTEAZKENA**

-08:00. **Flysch Gravel** txirrindularitza proba, Amaiak Bat taldearen eskutik (izen ematea: [flyschgravel@gmail.com](mailto:flyschgravel@gmail.com)).

**URRIAK 16, IGANDEA**

-19:00. **Zinema:** *Licorize pizza*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

**URRIAK 17, ASTELEHENA**

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, Foruen Plazan.

**URRIAK 18, ASTELEHENA**

-19:00. KulturEkin 2023 antolatzeke **bilera irekia**, Kultur Elkartean.

**URRIAK 21, OSTIRALA**

-17:30. **Ipuin kontaketa**, Debako Kontalarien eskutik, Itziaroko Burugorriin.

**URRIAK 23, IGANDEA**

-17:30. **Ipuin kontaketa:** *Gau beltza*. Debako Kontalarien eskutik, Ispiluen gelan.  
-19:00. **Zinema:** *Las ilusiones perdidas*, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

**Pentsiodunen mobilizazioak**

Astelehenetan egiten diren pentsiodunen ohiko elkarretaratzeek gain, urriaren 1ean **Adinekoen Nazioarteko Eguna** ospatuko da eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte eskualde mailan datozen egunotan. Urriaren 1ean bertan, eguerdian, eskualdeko mobilizazioa izango da Eibarren eta bertara joateko dei egin dute Debako pentsiodunek ere. 12:00etan Untzagan batzeko hitzordua ipini dute.

**Ostolaza udal liburutegiko Irakurketa Kluba**

Urriaren 3an izango da lehen saioa, Ainhoa Aldazabalek gidatuta, eta Andrea Abreuren *Panza de burro* (Barrett, 2020) liburuari buruz hitz egingo dute. Hilaren 26an, berriz, Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* (Susa, 2021) hartuko dute hizpide irakurleek, Asier Serranok dinamizatutako saioan. 19:00etan egingo dira bi hitzorduak eta izena eman behar da aurrez (informazio gehiagorako: 943 19 25 60).

**Agroekologia eta elikadura hizpide**

**Agroekologiaren eta elikaduraren inguruko jardunaldiak** Deban. Urriaren 1ean, informazio puntua, merkatu txikian (09:00-13:30). Urriaren 4an, **solasaldi-merienda** Kultur Elkartean, etorkizuneko elikadurari buruz hausnarketa egiteko (18:30). Hilaren 6an, film proiektzioa eta solasaldia herriko elkarte eta ekoizleekin Kultur Elkartean (19:00). Urriaren 8an, bisita eta dastaketa Lasturko Arruan Haundi baserrian.

**...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri**

**Irailak 30, OSTIRALA > Mutriku**

-San Jeronimo jaiak Mijoa auzoan: txupinazoa, meza, herri kirolak, bazkaria, zezen eta pottokak, txokolate-jana, erromeria...

**IRAILAK 30, OSTIRALA > Ermua**

-Bulego taldearen kontzertua, Ermua Antzokian. Sarrerak salgai 12 euroan. Antolatzailea: Ermuko Udala.

**URRIAK 1, LARUNBATA > Eibar**

-XXVII. Sagardo Eguna ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Eguerdian emango zaio hasiera ekimenari, Untzagan.



**ZAINZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: urriak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.

Burgoa Zuazo: urriak 3, 4, 5, 6, 21, 22, 23, 31.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

**DEBAKO BOTIKAK**

ZALDUEGI | 669 262 201  
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

**Larunbat goizetan beti bat irekita:**

ZALDUEGI: urriak 8 eta 15  
BURGOA ZUAZO: urriak 1, 22 eta 29



**Deba**  
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 | info@debaklinika.com  
20820 Deba, Gipuzkoa | T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

# Mikel

## ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,  
20820 Deba  
T. 943 191 774  
M. 699 975 206  
info@mikeliturgintza.eus

# ALBIZU

## HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

# ARKATZA

## Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak  
@adatsileak

## ITURLAN, S.L.

### Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfnoa - Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com

# Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# sasoiiko

ekodenda,  
dietaetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

## GENOVEVA

### Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

## Taxi Alain

### Deba

LIZ.-ZK.: 3 Wi Fi

www.taxideba.eus 636 135 008  
alain@taxideba.eus

## Seven Clovers

### Irish pub

943 191 295

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## janire & maitane

### ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

*mendian*

*Mintzar*  
**POZA**  
PRAKTIKATU

Indarrean dauden neurriak bete beharko dira



*aurzotan*

**ZUREKIN**

*euskaraz*

**EGIN NAHI DUGU**

*parkean*



*tabernan*



**IZEN EMATEA:** Urrian zehar  
labur.eus/Zuhatza\_Deba - 943 191 383

 [mintzalaguna.eus](http://mintzalaguna.eus)

Antolatzaileak



Babesleak

